



Lucia Onzain

Proiektu estrategikoak,
sozialak, kulturalak
eta ingurumenekoak

info@luciaonzain.eus
luciaonzain.eus



Ekitaldi batetik ikerketa estrategiko batera,
idea-lehiaketa batera edo baso bat sortzera...
Askotariko proiektuak pluralean, beti taldean
garatuak... hainbat taldetan.


Kultura-politikak, inklusioa, kulturen zein
identidadeen eta paisaien arteko harremana
edo sentsibilizazio-estrategien ezarpena lan-
eremuak izan dira urte honeetan.

Halaber, jarduera kulturalak egin dauz eremu
naturalean, espazio kulturalak asmau dauz uri-
ingurunean, ekitaldiak be egin dauz... Ekidadea
eta ezagutza partekatua bilatuz, asmauz,
ikertuz, narratibak sortuz, garatuz, aplikauz,
komunikatuz...

2024

Bartzelonako Foneria Reial zaharra birgaitzeko lehiaketa. Proiektu estrategikoa

Erakundea: Generalitat de Catalunya
Lankidetzak: ONL arkitektura



Lehiaketa honen helburua da XVII. mende amaierako eraikin hau, Rambletan kokatutako kanoi-galdaketa zaharra, kultura digitalari eskainitako ikerketa eta hedapen ekipamendu bihurtzea, kultura digitala "publiko zabalari" hurbildu ahal izateko eta etorkizuneko Catalunya Media Cityren "antena" gisa eratzeko.



2024 - 2020

Impredecible Basoa

Lankidetzak: impredecible
www.impredeciblebasoa.org



Impredecible Basoa Impredeciblearen ametsa da, BEAZek (Bizkaiko Foru Aldundia) lagunduta. Biodibersidade-ondarea hurrengo belaunaldientzat, persona, erakunde, enpresa eta elkarten artean espezie autoktonoak alkarlanean landatuz Muniketaganan (Muxika, Bizkaia) Urdaibaiko Biosferaren Erreserban bertan.

Impredecible Basoa baso autoktono kolaboratibo eta iraunkorra izango da, non "auzolana" eta antxinako animismo euskalduna pentsamentu garaikidearen bira biozentrikoagaz batzen diran, basoaren eta personaren arteko lotura emozionalak sortuz larrialdi klimatikoari aurre eginez, biodibersidadea, ezagutza sortuz eta galdutako paisaia naturala berreskuratuz.



2024 - 2015

Impredeciblearen Proiektuak

www.impredecible.eus



Impredeciblearen gizarte-arloko enpresan, ingurumenaren arloan, hirugarren sektore sozialean, barrikuntzan, kulturean, gizartearen eta komunikazioaren lan egiten dogu. Gizartearen eraldaketa positiboa bilatzen dabenez proiektuak garatzen doguz, kultura- eta gizarte-aniztasunetik eta giza garapen iraunkorretik abiauta. Honako honeek osotzen dogu Impredecible: Txabi Anuzita, Javi Gonzalez, Andi Gines, Lander Jimenez Ocio eta Lucia Onzain.

2023-2016 ONCE

2016az geroztik, ONCE Euskadirentzako sentsibilizazio- eta ospakizun-jarduerak asmatu eta garatu doguz, gizarteari, komunitate itsuari edo ikusmen-zailtasuna daukien pertsonen zuzenduta.

Desgaitasuna daben pertsonen egunerokotasunean desagitzen daben gainditzeari buruzko klaxe klasikoak desagerrarazten ikasi dogu; begirada paternalista eta kapazitista baten topiko adierazgarria.

2023/22/21 Carrera de Cascabeles Virtual ONCE Euskadi

Bezeroa: ONCE

Lankidetzatza: Impredecible



2016az geroztik, ONCE Euskadirentzako sensibilizazio- eta ospakizun-jarduerak asmatu eta garatu doguz, gizarteari, komunitate itsuari edo ikusmen-zailtasuna daukien pertsonen zuzenduta.

Desgaitasuna daben pertsonen egunerokotasunean desagitzen daben gainditzeari buruzko klaxe klasikoak desagerrarazten ikasi dogu; begirada paternalista eta kapazitista baten topiko adierazgarria.

COVID pandemiarekin, eguneroko ekintzak (erosketak, banku-kudeaketak, eskolak jarraitzea, talde-alkarriketak...) egiteko pantailakazko mendekotasuna erabatekoa izan zan.

Aldaketaren bizkortasunak agerian itxi ebazan ingurune digital horren eskuragarritasuna, erabilgarritasuna eta ulergarritasuna.

Kontzientzia horrek argia emon euskun kriskitin-lasterketa birtual barri bat garatzeko, hainbat erakunderi ikusmen-zailtasunak dituezan pertsonen edo itsuen online eremuan dabezan arazoak ikusarazoteko.

Inguru horreetan hobekuntzak bilatzen genduzan.

Hasieran, unibersidadeei, banketxeei eta online denda daben supermerkaduei konbitea luzatzen deutsegu euren ingurune propioetan nabigatu daieen modu pribatuan, ONCE Euskadiko afiliatuakaz.

Holan, egunero erabilten dabezan gailuetan (ordenagailuak, tabletak edo telefono mobikorrak) nabegetako daukien modua erakusten deutsee, beren "trikimailuak", funtzionetan dauena, zailtasunak, non "trabetan" diran...

Software espezifikoetan nabegetan dogu: pantaila-irakurgailuak, Braille lineak, Zoom text... eta azalpenakaz eta ONCEko tifloen laguntzeagaz osotzen dogu, konbidaukek software horreekaz nabegazino-esperientzia osoa bizi daieen, pista azkar eta errazak emonaz ingurune horreetan hobekuntzak ezarteko.

Zuzendaritza-taldeetako pertsonak eta euren webguneetako edo ingurune digitaletako eremu teknikoetako pertsonak bertaratu ziran, eta guztiek batera euren inguruneen irisgarritasuna zuzenean testatu ahal izan eben.

Egun batzuk eta gero balorazioak egin genduzan, eta bizipen sakona izan zala adierazo euskuen. Eskuratutako ezagutzak honezkero abian dagozan online inguruneetan hobekuntzak bultzatu dauz parte hartu daben erakunde askotan.



2020

Eten Barik Joten Feminismoa, euskal kultura eta aire zabaleko musika Bilbon.

Erakundea: Bilboko Udala

Lankidetzatza: Impredicible

Mariaren bihotza plazan, Eten Barik Joten ekitaldia ospatu genduan, panderoa, emakumearen rola, euskerea eta kultura ardatz hartuta, Bilboko Udalak Aurrera Planean abiarazotako programazioaren barruan. Plan horrek Bilboko kaleetan jardura kulturala berreskuratzea eban helburu, covid-19aren pandemiak sortutako isolamenduaren ondoren.

Eten Barik Joten dokumentala proiektu genduan, Euskal Herriko emakume pandero-joleen irudia berreskuratzeko dauena, emakumeek espazio publikoa konkistatzeko egin daben bide luzea erakutsiz, Aingeru Berguicesen (Bilbo, 1957- 2022) ikerketan oinarrituta. Bertan, erakusten da zelan emakume pandero-joleak, historikoki, podere sozial mugatua izan dau espazio eta denporan, erromerien eta jaien eremu barruan.

Pandero-joleen, trikitilarien, bertsolarien, kirolarien eta idazleen narrazioen bidez, ezagutzen dogu zein izan dan instrumentu honek Euskal Herriko historia garaikidean izan dauen papera eta espazio publikorako prozesua. Dokumentalaren zuzendaria Ivan Batty, Edurtzeta Ania pandero-joleak (Durango, 1927- 2023) eta Raquel Pujana trikitilaria geugaz batera egon ziran ekitaldi honetan.



2019

Agora for all

Bezera: Gestores Europeos

Irisingarritasunaren alorreko ikerketa, bilaketa eta edukien sorrera Gestores Europeosek bultzatu eta BEAZ Bizkaiak lagundutako irisingarritasunaren inguruko plataforma/app proiekturako.

2018-2016

Garraio Tour 2016 Bilbo 2017 Donostia 2018 Gasteiz

Bezeroa: ONCE

Lankidetzatza: Impredecible



Garraio Tour sentsibilizazio estrategikoaren jardura bat izan da, esperientzia pertsonalean oinarritua, eta oso eragin handia izan dau itsuen edo ikusmen txikiko pertsonen bizitza hobetzeko, baita oro har garraio publikoaren erabiltzaileena be.

Garraio Tour, agintariakaz eta garraio publikoko arduradunakaz itsu-itsuan egindako bira, kudeatzen dabezan garraio bideetatik: Uri barruko eta uriarteko autobusak, metroa, tren eta tranbia.

Garraio bide publikoetan zirkuitu laburrak egin ziran EAEko uriburuetako (eta inguru etako) bakotxean, eremuko arduradun politikoekin (Eusko Jaurlaritzako sailburuak, Aldundietako diputaduak eta Udaletako zinegotziak) garraio publiko bakoitzeko teknikariek batera. Guztiak itsu-itsuan, (edo ikusmen-urritasunak simulatzen dituzten betaurrekoekin) itsuen gidaritzapean. Ezagutza transmitidutea, normalean esperientziak partekatzen ez dabezan personak harremanetan jarritz.

Euskadiko garraio bide publikoen irisgarritasunean egindako hobekuntza eztabaida ezinak balioztatu ziran. Era berean, arduradunek landu eta hobetu beharreko hobekuntza-elementuak identifikatu eta partekatu ebezan, erabiltzaile itsuen edo ikusmen baxuko erabiltzaileen eskutik. Pixkanaka ezarri diran hobekuntzak.

Garraio bideak:

Dbus, Lurraldebus, Alavabus, Tuvisa, Bilbobus, Bizkaibus, Euskotren (tren eta tranbia) Vitoria Gasteiz, Bilba eta MetroBilbao.

2017

Basque Culinary Center Zer plater daukat aurrean jatetxe baten? Zelan dago banatuta? Non dago ogia mahaian?...

Bezeroa: ONCE

Lankidetzatza: Impredecible



Itsuek edo ikusmen urriko pertsonak dabezan zailtasunak hurbilduko doguz sukaldaritza zein jateetxetara, sektorean eraldaketa positiboak bultzatzeko ezagutzaren bidez. Jatetxeen sektorean itsuek edo ikusmen baxuko pertsonak dabezan zailtasunak hurbildu izan doguz, eraldaketa positiboak eremu honetan bultzatzeko ezagutzaren bidez.

Taberna batean pintxo bat aukeratzeko zailtasuna, pintxo hori non dagoan jakitea edo nondik hartu, egunerokotasun arazoak dira kolektibo horrentzat. Laguntza txiker batez erraz konpondu leitekez, baina normalean, nekez emoten dira. Horregaitik jarri ginan harremanetan gastronomian nazinoarteko erreferentzia dan Basque Culinary Centerragaz honako ariketa hau proponiduteko: erreferentzia zko sukaldariakaz eta BCCko irakasleakaz bazkari inklusibo baten alkartzea, ONCEko personakaz batera bazkarira itsu-itsuan joan eitezan.

ONCEko tiflo batek jarraibideak emoten eutsezan mahaikideei eta zerbitzariei. Plateraren ahozko deskripzioaren bidez, platerren osogaien kokapen espaziala kontatuz edo mahaiaren antolamenduaren ahozko mapaketagaz lagundu eben ez-ikusien zailtasunak gaintzeko.

BCCko irakasle konbidauak euren bizipenak eta hausnarketak bazkari desbardin horretan konpartidu euskuezan. Ikasleen prestakuntzan indartze-eremu bat hauteman eben.

2018**ONCEren Astearen Inaugurazio Ekitaldia**

Bezeroa: ONCE
Lankidetzatza: Impredecible



2018an, ONCEren sorreraren 80. urteurrena ospatu genduan Gasteizen. Ahots desbardinek eta ONCEren afiliatuek gidatuko eben saio sinboliko hau.

Iratxe Gomezek, SIRI adimen artifizialeko lehen ahotsak, itsuek edo ikusmen baxukoek erabiltzen dabeneren ahotsa euren nabigazioetan, Inko Martinen soinu-kontakizuna ustekabean kontau eban entzuleentzat, Alberto de la Hozen soinu-laguntzeagaz.

Bertan Irene Fraile eta Jone Martinez sopranoak izan ziran, Iñigo Iraultza (IRU) aktorea, afiliatuen belaunaldi gazteen dantzak, eta azkenean Ana Urrutia aurkezle lanetan. Iñigo Urkullu izan zan buru, Ramiro González Arabako Ahalduen Nagusia eta Gorka Urtaran Gasteizko alkatea bertan ziralatza, bai eta Euskadiko hirugarren sektoreko eta ONCE Euskadiko ordezkariak be.

Bidaideak aterik-ate

Bezeroa: Bidaideak
Lankidetzatza: Impredecible

Bidaideak alkarteak atez ateko doako zerbitzua eskaintzen deutse dibersidade funtzionala eben personei, izan be, garai hatan 25. urteurrena beteten eben eta ospatzen lagundu geuntsen.

Bere langileak, proiektuan denpora honetan guztian zehar lagundu eta sinistu dabene personak eta erakundeak, eta erabiltzaileak, benetako protagonistak, aintzat hartzea bilatzen zan. Tokiko erakundeetako (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritza) ordezkari sozialek parte hartu eben, eta 300 persona inguru bertaratu ziran.

Dibersidade funtzionala dauan persona batek dantza egin eban, eta dantza harek distira egiten deusku oroimenean ordutik.

2016**Kirol egokitua Azkuna Zentroan Ezetz ausartu?**

Bezeroa: ONCE
Lankidetzatza: Impredecible

Ezin dogu ahaztu kirola inklusioan lan egiteko beste esparru bat dala. Azkuna Zentroak gure gonbidapena onartu eban eta entrenetako kirola modu egokituan eskaini eutseen erabiltzaileei. Holan entrenetako erronka onartu eben pertsonak hain entrenamentu berezia bizi izan eben, oindino gogoan dabela.



2016

Bilbao gupil ganean

Bezeroa: ONCE
Lankidetzta: Impredecible

Urian itsu-itsuan pedalei eragitea, gidatzen eban personarengan konfiantza osoa izatea zan herritarroi proponiduten deutsegun erronka. Auto artean pedalei eragiten zeuntsela jakitea, jatsieraren abiadura bat-bateko bihurrune bat hartuz sentidutea, ez begiratzeko konpromisoagaz... Erronka bizigarria, dibertigarria eta sentsibilizatzailea bizi izan genduan.

Herri kirolak inklusiboak

Bezeroa: ONCE
Lankidetzta: Impredecible

ONCEko afiliauek eta parte hartzeko jakin-minez eta gogoz hurbildu ziranez (horreen artean esperientzia inklusiboa, oso landatarra eta oso dibertigarria bizi izan eben turistek) apustuz betetako zapatu goizaz gozau eben: soka-tira, fardo-altxatzea, txinga eroatea..., hori bai, sarbide unibersal eta inklusiboagaz.

**Penaltiak itsu-itsuan**

Bezeroa: ONCE
Lankidetzta: Impredecible

ONCE Euskadi Roberto Tamayoren oroimenezko X. Getxo Emakumezkoen Nazioarteko Futbol Txapelketan sartu zan, jokalariek ONCEko penaltietan, itsu-itsuan, lehiatzeko eben erronkeagaz. Erronka hau hain bitxia eta bizia izan zan jokalarientzat, ze, euren atzetik, epaileek eta entrenatzaileek be parte hartu nahi izan eben.



Aldagelan, alkarrizketak eta hausnarketa ez ziran partiduen inguruan izan, bizitako esperientzian, zailtasunean, orientazioan, belarriz hautematean eta norberaren gorputzaren kontzientzian baizik.

2016

Hitzordua itsuan

Bezeroa: ONCE
Lankidetzatza: Impredecible

Terminoaren literalitasunakaz jolastea eta apur bat "ganberroak" izatea iruditu jakun, sentsibilizazio-ekintza dibertigarri honetan inkusiboki ezagutzen lagunduko leuskigu. Persona ezezagunak ezagutzeko eta hareekaz harremanetan jarteko egoeran itsu-itsuan jarri genduzan.



2016

Bilboko Itsasadarra sentidu gura dozu?

Bezeroa: ONCE
Lankidetzatza: Impredecible

Experimentamos una faceta insólita, subterránea, desconocida en nuestra ciudad que nos acercó al esfuerzo realizado por el Consorcio de Aguas de Bilbao para consolidar la ría como un elemento vivo en la ciudad. Conocimos el "ingenio" de una importante muestra de nuestra ingeniería civil de estos últimos años, recorriendo el sifón de la Universidad de Deusto. Un "bypass" formado por sendos pozos verticales en cada margen de la ría unidos por una galería perforada en la roca bajo su cauce. En la superficie el "otro" viaje conocido por todos: el incansable viaje de llenado y vaciado de las aguas del Nervión que experimentamos en un paseo en barco. De experiencia en experiencia: "experimentamos" la cultura marina asociada a la ría en la visita que gustosamente nos adaptó el Museo Marítimo de Bilbao e hicimos un taller de nudos marineros "a ciegas", indispensables para el día a día.

2016

ONCE Lehiatiletan

Bezeroa: ONCE
Lankidetzatza: Impredecible

Onceren argazki bilduma bere erakusketa-gune tradizionaletik atara genduan Bilboko dendetako erakusleihoetara erroteko (Indautxun eta Alde Zaharrean). Urian zehar ibilbide bat egin genduan, esperientzia honetan konplize izan ziran hainbat dendaren laguntzeaz.



2016**Zubietatik Ozenki**

Bezeroa: Unesco Etxea
Lankidetzatza: Impredecible

“Donostiako zubiak alkargune gisa hartzen badoguz, kultura desbardinakaz bat eginez, urian bizi izan ziran, gaur egun bizi diran eta etorkizunean biziko diran pertsonen oroimenaren lokailu gisa... Zer kontau deuskuzu?”

Deialdi edegi horren ondoren, eta Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren inaugurazioa dala eta, hainbat pertsonak Urumeako bost zubiak irakurri, abestu, entzun eta zehartu genduzan, zubiak alkartzeko eta igaroteko espazio gisa azpimarratuz.

**2015/2016****Emon minutu bat**

Bezeroa: Unesco Etxea
Lankidetzatza: Impredecible

UN Etxea Euskal Herriko Elkarteak (Unesco) urtero sustetan dauen lehiaketeta da. Bertan, Giza Eskubideak defendatzen, sustatzen, aldarrikatzen, zabaltzen edo kontzientziatzen dabezan minutu bateko ikus-entzunezko pieza onenak saritzen dira. Urtero, sariak emoteko hitzordua erritual bat da, eta gogoeta egitera eta guztion onerako lan egitera konbidetan gaitu.

Emon minutu bat Bardintasunaren ganean eta Emon minutu bat Giza Eskubideei buruz.

Sariak EITBren egoitzako Multibox aretoan banatu ziran, eta 300 lagun inguru bertaratu ziran bi edizinoetan. Bertan, munduko hainbat lekutako ikus-entzunezko piezak erakutsi ziran.



2013-14

Bilbaohodei

Erakundea: Bilboko Udala
Lankidetzatza: 4. Lokala

Bilbo Hiria garatzeko proiektu estrategikoa: Bilbo Metropolitarra paisaiaren, kulturen eta identitateen esparrutik dinamizetako estrategiak.

que vino a Bilbao para ver la ría y el mar pero en esta ocasión es que descubrirá algo más que su predecesor. Llega a Bilbao por bsa, le interesa la naturaleza, la meteorología. La senda de Hans nda vinculada a una serie de valores. Llega a Bilbao- Bizkaia un s pero sí con un relieve accidentado que le permite en un área ero de cimas, así en 7/8 días se ha propuesto llegar a 45...

non dagoz?

...para ello Bilbaohodei ofrece un mapa de todas las cimas y a través de un dispositivo móvil Hans puede visualizar desde el punto en que esté, las cimas próximas a él, así como acceder a información de cada una de ellas, nombre, altitud, sistema del que forman parte, rutas de acceso, dificultad, etc.

Ms. Hawley

También ofrece la posibilidad de en cada una de ellas certificar la ascensión junto a la entrega de un certificado final y un premio a aquellos que han alcanzado todas las cimas del territorio.



salen como setas

Traslado BILBAOhoDEI, destino Gorbeia

Salen como setas. Las administraciones locales han puesto a disposición de los propietarios de caseríos el alquiler de construcciones prefabricadas para un uso como alojamientos temporales, casas de vacaciones en épocas de fuerte demanda hotelera en la comarca. Son estructuras desmontables, sostenibles, auto eficientes energéticamente y construidas con recursos locales. Hans se queda gratamente sorprendido por la amabilidad de los propietarios del caserío, conoce una

2011

2011 Irakaskuntzea barrizeko proiektua.

Arte Hezkuntzako Masterra.
Irakasleen prestakuntza

Egindako proposamena bigarren hezkuntzako ikasleak (DBHko hirugarren eta laugarren mailak) errealizadore aktibo gisa jartzean oinarritzen da. 70eko hamarkadatik gaur egunera arte garatutako praktiketan sakontzen da: ekintzak, graffitiak, arte prozesuala, objektuala ez dana, dokumentazioa, artxiboa, espazio publiko baten ekintza bat egiteko helburuagaz. Gerra Zibilean fusilamenduak egin ziran Bizkaiko Foru Liburutegiko hormetako bat aukeratu zan ikerketa eta esku-hartze gune gisa. Espazioaren memoria berreskuratu zan belaunaldi barriak ezagutzeko, stop motion animazio batzuetan dokumentatutako hainbat ekintza egin bitartean.

2011

Lurralde kulturalak

Erakundea: Donostiako Udala
Lankidetzatza: Local 4

Donostia 2016ko Kulturaren Europako Hiria izateko hautagaitzarako egindako proiektua. Proiektu hau Donostia Kultur Hiriburutzatza garatzeko bost oinarri-sistemetakoa bat izan zan.




En cada uno de los lugares se aporta información sobre las personas y los lugares desaparecidos a través de diferentes dispositivos. La visualización de estos puntos se lleva a cabo con fragmentos del cuadro del Gernika a modo de señalética. Las personas que acceden a estos lugares tienen la posibilidad de volcar vivencias similares. Un mirador cubierto situado en el entorno de la ermita de San Pedro genera un ámbito donde solucionar la necesidad humana perenne, ante el dolor, de sentirse arropado, reconfortado y esperanzado

Cartografía marítima emocional.

Desde Azti se está llevando a cabo el levantamiento de una cartografía emocional del mar. La batalla de Matxitako así como el paso de algunas galernas devastadores están reflejadas en estos mapas.

CAPACIDAD DE ADAPTACIÓN, HACER CON LO QUE HAY MANUFACTURAS



Lo que el mar nos devuelve.

Parte de lo que el mar nos devuelve son residuos que hemos vertido en él. Esta estrategia activa la recogida de residuos como plásticos, que se colocan en estructuras tipo mallas a modo de exvotos (trasladando la tradición de exvotos marinos en las iglesias a partir del siglo XVIII a los espacios públicos) que la gente puede manipular y darles forma al mismo tiempo que las van llenando con lo que recogen del mar. Es una acción que nos permite reciclar, participar y nos hace conscientes de esta realidad. Se trata de no esconder lo que nos molesta sino ponerlo en valor. Se invita a modificar (simulando las estrategias de Ligya Clark en los 70) estructuras planteadas a través de su manipulación para intensificar la percepción sensorial y sentir las conexiones que existen entre la propia individualidad y lo colectivo.

2010

Ezagutzarako Parke Kulturalen Sarea Donostia urirako proiektu estrategikoa, uri-muinoak lurralde-euskarri moduan

Garapen estrategikoko proiektua

Erakundea: Donostiako Udala
Lankidetzatza: Local 4

Donostiako Udalerako proiektu honek kultur garapena, lurraldearen antolamenduari laguntzea, mobikortasuna, irisgarritasuna eta konektibitatea hobetzea eta bizilagunen bizi-kalidatea hobetzea eban helburu. Uriko naturaz eta paisaiatz gozatu bitartean, kulturaren ezagutzea eta zabalkundea hedatuz, eta hori dana jasangarritasuneko eta parte-hartze sozialeko esparru baten barruan.



2009

Arte bisualen sektoreko kultura-politikako eredu- buruzko azterlana Europan.

Euskadiko ikusizko arteen etorkizuneko agertokiak

Euskadiren eremuan errealdadea aztertu eta mapeatu ondoren, beste ingurune batzuetan eta beste errealdade batzuetan egindako kultura-politikak sakon aztertu genduzan.

Kontrastearen ondoren, sektoreak balizko agertokiak eta gomendioak emon ebazan.

Garapen estrategikoko proiektua. Erakundea: Eusko Jaurlaritza.


Lankidetzak: Miren Eraso, Miren Jaio,

2004-2005

NASA/NAJA proiektua. Bilbo.

Erakundea: Bilbao Ria 2000
Lankidetzak: IMB arkitektoak

Nasa/NAJA, Bilbao Ria 2000k bultzatutako Kultura Garaikideko Zentroaren Kultur Proiektuaren erredakzio- taldeko arduraduna.



This complex block contains several elements:

- At the top, a horizontal strip of images: a film strip, a portrait of a man in a hat, a group of people, a car interior, and a man in a suit.
- In the center, the 'NASA NAJA' logo in large, stylized letters.
- Below the logo, the text: 'Ikus eta entzunezko kultura garaikiderako lekua' and 'Espacio para la cultura visual y sonora contemporánea'.
- At the bottom, a night photograph of a large, illuminated building reflected in water.
- On the right side, a list of logos and names: 'fondo contemporáneo audiovisual y sonoro', 'mediateca', 'memoria de la ciudad', 'coleccion de Arte audiovisual NASANAJA', 'laboratorio', and 'proyectos sputnik'.

-
- 2003** **Sorkuntza eta adierazpen artistikoa/ arte plastikoak arloko lantaldea, Kulturaren Euskal Kontseilurako arte bisualetako Kultura Politikako Plan Estrategikorako. Erakundea.**
- Erakundea: Eusko Jaurlaritzza
-
- 2002-2003** **Kultura Politikako Plan Estrategikoa**
- Erakundea: Eusko Jaurlaritzza
- Xanti Eraso (Artelekuko zuzendari ohia), Fundación Rodríguez eta Franc Larcadegaz batera, Arte Plastiko eta Bisualak izeneko ikusizko arteei buruzko Planaren esparru-txosteneko erredaktoreak.
-
- 2000** **IFU - Emakumeen Nazioarteko Unibertsidadea- Hannover. Gorputzerako eta migrazinoetarako tailerra.**
- Erakundea: Internationale Frauen-Universität - IFU
Lankidetzta: Fefa Villa, Azucena Vieites
- Emakumeen Nazioarteko Unibersidadea (Internationale Frauen- Universität, IFU), Hannover urian egin zan, Alemanian, EXPO 2000ren paraleloan. 900 ikaslek, edozein herritatik etorriak, izan eben aukerea ingelesez graduondoko diziplinarteko programa baten parte hartzeko. IFUk interes berezia eukan GKEetako artistek eta aktibistek parte hartu eien, eta gorputz, uri, informazino, emigrazino, ur eta laneko esparruetan jarduten eban.
-
- 1992** **Artist in residence at work.**
- Erakundea: Guelpheko Unibertsidadea
- Hitzaldiak eta tailerrak emonaldia graduko, doktoregoko eta, oro har, publikoko ikasleakaz, Guelpheko Unibersidadean "Quiéreme (para marimar)" pieza instalaletan zalarik.

